EDIKTUA, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariak 2003ko abenduaren 1ean emandako Ebazpena jakinarazten duena. Ebazpen haren bidez, ezetsi egin zen «Fundación Faustino Orbegozo Eizaguirre» Fundazioari Euskal Herriko Fundazioen Erregistroan baja emateko eta fundazioaren espedientea Estatuko Babeslaritza eskudunari bidaltzeko uzia, bai eta ekintzak egiaztatzeko prozedura kautelaz bertan behera uzteko uzia ere. 1168

MUNGIAKO UDALA

IRAGARKIA, Ibaibide kaleko 2 zenbakidun eraikinari jagokozan Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala hasiera baten onartzeari buruzkoa. 1174

IRAGARKIA, Butroe ibaia egokitzeko Arau Subsidiarioak aldatzeari hasierako onarpena emateari buruzkoa. 1174

EDICTO por el que se notifica la Resolución de 1 de diciembre de 2003 del Director de Estudios y Régimen Jurídico del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se desestima la pretensión de dar de baja en el Registro de Fundaciones del País Vasco a la «Fundación Faustino Orbegozo Eizaguirre» y trasladar el expediente de dicha Fundación al Protectorado estatal competente, así como la pretensión de suspender cautelarmente procedimiento de verificación de actividades. 1168

AYUNTAMIENTO DE MUNGIA

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias relativo al edificio situado en Ibaibide kalea n.º 2. 1174

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias relativa al acondicionamiento del río Butroi. 1174

# Xedapen Orokorrak

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### Zk-339

AGINDUA, 2003ko abenduaren 16koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitzaren premiaren inguruko egoerei buruzko 2002ko abenduaren 30eko agindua aldatzen duena.

Etxebizitzaren premiaren inguruko egoerei buruzko 2002ko abenduaren 30eko Aginduak salbuespenezko kasu batzuk arautu ditu, non beste etxebizitza baten jabetza, jabetza soil, azalera-eskubide edo gozamenaren titular direnak ere etxebizitzarik gabekotzat jo daitezkeen, babes ofizialeko etxebizitzen araudiaren ondorioetarako.

Salbuespenezko kasuetako bat abenduaren 30eko Aginduaren 3.6 artikuluan dago jasota; hain zuzen ere, pertsona fisikoren batek edo bizikidetzako unitateko kideren batek ezgaitasunen baten ondorioz mugikortasun urri iraunkorra izatea. Halako kasuak zehatz-mehatz daude araututa esandako 3.6 artikulu horretan, eta artikulu horrek berak ematen du «mugikortasun urri iraunkorra duen ezgaitu»ren kontzeptua.

Dena den, ezgaitu edo ezinduen artean badira, mugikortasun oso urria izanda ere, 2002ko abenduaren

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### N°-339

ORDEN de 16 de diciembre de 2003, del Consejero del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se modifica la orden de 30 de diciembre de 2002 sobre circunstancias de necesidad de vivienda.

La Orden de 30 de diciembre de 2002, sobre circunstancias de necesidad de vivienda regula aquellos supuestos excepcionales en los cuales, personas que aun siendo titulares de vivienda en propiedad, derecho de superficie, usufructo o nuda propiedad son considerados carentes de vivienda, a los efectos de la normativa de vivienda de protección oficial.

Uno de los supuestos excepcionales, concretado en el artículo 3-6 de la Orden de 30 de diciembre, es el relativo a personas físicas o unidades convivenciales en las que algún miembro acredite la condición de discapacitado con movilidad reducida de carácter permanente. Estos supuestos tienen una regulación propia muy específica que se detalla en dicho artículo 3-6. Pero es el citado artículo el que, además, proporciona el concepto de «discapacitado con movilidad reducida permanente».

Dentro del colectivo de discapacitados existen personas que, aun teniendo muy reducida su movilidad,

30eko aipatu Aginduak egiten zuen zehaztapenean sartzen ez direnak. Horrek, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren interpretazio zuzenagoarekin batera (Errege Dekretu horrek, gogoratu, ezgaitasunaren maila onartzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozesua arautzen du, eta hiru maila edo kategoria berezi ditu mugikortasun-arazoei dagokienez), behar-beharrezko egiten du, berez, etxebizitzaren premiaren inguruko egoerei buruzko 2002ko abenduaren 30eko Aginduaren aldaketa hau.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak hainbat aldiz nabarmendu ditu gorabehera horiek guztiak, halako moldez non Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak egoki iritzi baitio egungo arauetan aldaketak egiteari, egiaztatutako gizarte-eskakizun horiei erantzuna emate aldera, eta, baita ere, etxebizitzaren premiaren inguruko egoerei buruzko 2002ko abenduaren 30eko Aginduak ordenamenduan txertatzeko zituen arazoak, aurreko lerroaldean aipatu direnak, konpontzeko.

Aurreko guztiaz gain, aipatu egin behar da Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua (Etxebide), egungo arauekin, arazo larriak izaten ari dela ezgaituentzako egokitutako babespeko etxebizitza guztiak talde horretakoek bete ditzaten. Etxebizitza egokitu horiek altxor publikoari bereziki garesti zaizkionez, indarrean sartu beharreko aldaketak, gaiari buruzko estatuko eta erkidegoko araudiak uztartu edo Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren eskakizunak betetzeko ez ezik, Eusko Jaurlaritzak ezinduen kolektiboari zuzendutako babes ofizialeko etxebizitzen sustapenera bideratzen dituen funtsak hobeto erabiltzea ere ekar dezake.

Beste alde batetik, etxebizitzaren premiaren inguruko egoerei buruzko 2002ko abenduaren 30eko Aginduak ondoko kontzeptua ere arautu du: jabetzan, azalera-eskubidean, gozamenean edo jabetza soilean etxebizitzarik ez izatea, administratuei bide ematen diena babes ofizialeko etxebizitzen eskatzaile bihurtzeko, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren (Etxebide) bitartez.

Babes ofizialeko etxebizitzen eskatzaileen Erregistroan egiaztatu ahal izan denez, erregistro horretan izena emanda duten administratu batzuk izenpetuta dituzte etxebizitza librearen erosketa geroraturako hitzarmenak. Horren ondorioz, beharrezko iritzi zaio jabetzan, azalera-eskubidean, gozamenean edo jabetza soilean etxebizitzarik ez izateko kontzeptuari aldaketa bat egitea.

Aurrekoaren ondorioz, administratu horiek kanporatu egin dira etxebizitzaren alorrean EAEko Administrazioaren babesa eta sostengua hartu behar duen taldetik, etxebizitza erosteko kontratua izenpetzeak berak argi eta garbi erakusten duelako administratu horiek ez dutela etxebizitza babesturen beharrik.

no encajan en la descripción que en la citada Orden de 30 de diciembre de 2002 se hacía. Esta circunstancia junto con una más correcta interpretación del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, por el que se regula el procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad que señala tres categorías diferentes en cuanto a problemas de movilidad hacen, por si mismas, necesaria la presente modificación de la Orden de 30 de diciembre de 2002, sobre circunstancias de necesidad de vivienda.

Todas estas circunstancias han sido puestas de relieve en múltiples ocasiones por el Consejo Vasco para la Promoción de la Accesibilidad, hasta el punto de que el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales ha entendido que deben acometerse modificaciones en la actual normativa para dar satisfacción a estas contrastadas demandas sociales, así como a los problemas de encaje ordinamental de la Orden de 30 de diciembre de 2002, sobre circunstancias de necesidad de vivienda citados en el párrafo anterior.

A todo lo anterior hay que añadir que, con la actual normativa, en algunas ocasiones el Servicio Vasco de Vivienda (Etxebide) se enfrenta a serias dificultades para conseguir que todas las viviendas protegidas adaptadas para discapacitados sean efectivamente ocupadas por miembros de este colectivo. Como quiera que éstas viviendas son especialmente gravosas para el erario público, la modificación normativa a introducir puede ayudar no solo a coordinar la regulación estatal y autonómica de la materia o a dar satisfacción a las demandas del Consejo Vasco para la Promoción, sino también pueden suponer un mejor uso de los fondos dedicados por el Gobierno Vasco a la promoción de Vivienda de Protección Oficial dirigida al colectivo de discapacitados.

Por otra parte, la Orden de 30 de diciembre de 2002, sobre circunstancias de necesidad de vivienda regula el concepto de carencia de vivienda en propiedad, derecho de superficie, usufructo o nuda propiedad que habilita a los administrados para convertirse en demandantes de Vivienda de Protección Oficial a través del Servicio Vasco de Vivienda (Etxebide).

Una vez que se ha constatado que en el Registro de Demandantes de Vivienda de Protección Oficial figuran administrados que han firmado contratos de compra diferida en el tiempo de vivienda libre, se ha considerado necesario introducir un cambio en el concepto de carencia de vivienda en propiedad, derecho de superficie, usufructo o nuda propiedad.

Como consecuencia de lo anterior se ha excluido a estos administrados del grupo que debe merecer la tutela y protección de la Administración de la CAPV en materia de vivienda, al ser el propio hecho de la firma de un contrato de compra de vivienda una evidencia de la inexistencia de necesidad de vivienda protegida por parte de estos administrados.

Horri jarraiki eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 12ko 40/2002 Dekretuak 4 artikuluan xedatutakoaren arabera eta babes ofizialeko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko 315/2002 Dekretuak azken xedapenetan lehenengoan ezarritakoaren arabera, hauxe

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.*** Etxebizitzaren premiaren inguruko egoerei buruzko 2002ko abenduaren 30eko Aginduaren 2. artikuluari 3. paragrafo berria gehitu zaio, ondoko testuarekin:

«3.– Agindu honen ondorioetarako, ondoko hau ulertuko da: etxebizitza librearen erosketa geroraturako kontratua izenpetu duten administratuek ez dutela betetzen jabetzan, azalera-eskubidean, gozamenean edo jabetza soilean etxebizitzarik ez izateko betebeharra.»

***Bigarren artikulua.***– Etxebizitzaren premiaren inguruko egoerei buruzko 2002ko abenduaren 30eko Aginduaren 3. artikuluaren 6. paragrafoari bestelako idazkera eman zaio, eta honela geratu da:

6.– Eskatzaileen bizikidetzako unitateko kideren batek ezgaitasunen baten ondorioz mugikortasun urri iraunkorra duenean, betiere honako eskakizun hauek betetzen direnean:

a) Etxebizitzak kokaleku duen eraikinak ez dituenean betetzen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak, hiri-ingurune, espazio publiko, eraikuntza eta informazio- eta komunikazio-sistemetako irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartu zituenak, barne hartutako sarbide eta igogailuei buruzko zehaztasunak.

b) Eskuratu nahi den etxebizitzak betetzen dituenean aurreko idatz-zatian adierazirako sarbide eta igogailuei buruzko zehaztasunak.

Administrazio honek sustatutako gizarte-etxebizitzak edo erregimen berezikoak jabetzan edo azalera-eskubidean esleitzen badira, eskatzaileen etxebizitza, kargetatik eta lagunetatik libre dagoela, eta esleitutakoa trukatzea beharrezkoa izango da. Gainerako kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku utzi behar da, era berean kargetatik eta lagunetatik libre dagoela. Administrazioak berak eros dezake edo beste erosle bat izenda dezake; edonola ere, gehienez eskuratu beharreko babes ofizialeko etxebizitzaren prezioa ordain daiteke.

Babes ofizialeko etxebizitza errentamendu-erregimenean esleitu edo eskuratzen bada, beste etxebizitza baten jabetza, azalera-eskubide edo gozamenaren titularra den bizikidetzako unitateko kideak jarri beharko du

En su virtud, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 40/2002, de 12 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, y en la disposición final primera del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo

DISPONGO:

***Artículo 1.º*** Se crea un nuevo apartado 3 del artículo 2 de la Orden de 30 de diciembre de 2002, sobre circunstancias de necesidad de vivienda, con el siguiente texto:

«3.– A los efectos de esta Orden se entenderá que no cumplen el requisito de carencia de vivienda en propiedad, derecho de superficie, usufructo o nuda propiedad aquellos administrados que hayan firmado un contrato de compra diferida en el tiempo de vivienda libre.»

***Artículo 2.º*** Se da nueva redacción al apartado 6 del artículo 3 de la Orden de 30 de diciembre de 2002, sobre circunstancias de necesidad de vivienda, que quedará redactado como sigue:

6.– Que exista entre los solicitantes algún miembro de la unidad convivencial que acredite la condición de discapacitado con movilidad reducida permanente siempre que se cumplan los siguiente requisitos:

a) Que se trate de una vivienda ubicada en un edificio que no cumpla las determinaciones relativas a accesos y aparatos elevadores, contenidas en el Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

b) Que la vivienda a adquirir sí cumpla las determinaciones relativas a accesos y aparatos elevadores a que se refiere el apartado anterior.

En el caso de adjudicación en propiedad o derecho de superficie de vivienda social o de régimen especial promovida por esta Administración será precisa la permuta, libre de cargas y ocupantes, de la vivienda cuya titularidad ostentan los solicitantes por la adjudicada. En el resto de los casos, será necesaria su puesta a disposición de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, igualmente libre de cargas y ocupantes, que podrá adquirirla por sí misma o por quien designe, como máximo, al precio de la vivienda de protección oficial a adquirir.

En el caso de que la adjudicación o acceso a la vivienda de protección oficial sea en régimen de arrendamiento, el miembro de la unidad convivencial, que sea titular del derecho de propiedad o derecho de superfi-

etxebizitza Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren esku edo Sail horrek izendatutakoaren esku, etxebizitza errentamenduan lagatzeko.

Titularraren etxebizitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo badago, babes ofizialeko etxebizitzaren errentamendua eskrituratu edo izenpetu aurretik egin behar da eskualdatzea.

Ondorio horietarako, mugikortasun urri iraunkorra duten ezgaitutzat joko dira abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren, minusbaliotasunaren maila onartzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozesua arautzen duenaren, 3. eranskinean bildutakoak, betiere organo eskumendunaren ziurtagiriaren bidez honako egoeretakoren batean daudela egiaztatzen badute:

a) Gurpil-aulkira mugatuta egotea.

b) Ibiltzeko nahitaez bi makila behar izatea.

c) D) eta H) arteko idatz-zatietan 7 puntu edo gehiago lortzea.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamonean sartuko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko abenduaren 16a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

cie o usufructo sobre otra vivienda, tendrá la obligación de ponerla a disposición del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, o de quien éste designe, para ser cedida en arrendamiento.

Si la vivienda de la que se es titular está sita fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco deberá acreditarse su transmisión con anterioridad a la escrituración o suscripción del contrato de arrendamiento de la vivienda de protección oficial.

A estos efectos se considerarán como discapacitados con movilidad reducida permanente, de entre los recogidos en el Anexo 3 del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, por el que se regula el procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de minusvalía, los que acrediten mediante certificación del órgano competente hallarse en alguna de las siguientes circunstancias:

a) Los confinados en silla de ruedas.

b) Los que dependan absolutamente de dos bastones para deambular.

c) Los que sumen 7 puntos o más en relación con los apartados D) a H).

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco

En Vitoria-Gasteiz a 16 de diciembre de 2003.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### OSASUN SAILA

### Zk-340

529/2003 EBAZPENA, abenduaren 9koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, José Agustín Aguirre Aramburu jaunak Gipuzkoako Osasun Barrutiko Donostia Ospitaleko zuzendari mediko izateari uzten diola aditzera ematen duena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 21eko 218/02 Ebazpenaren bitartez, José Agustín Aguirre Aramburu jauna izendatu zu-

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### N°-340

RESOLUCIÓN n.º 529/2003, de 9 de diciembre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se declara el cese, de D. José Agustín Aguirre Aramburu como Director Médico del Hospital Donostia, Area de Salud de Gipuzkoa.

Mediante Resolución 218/02, de 21 de marzo, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se nombró a D. José Agustín Aguirre Aramburu como